

Asteburuko proposamenak



Mungialako San Antontxu eguneko abere azoka. MUNGIANO UDALA

Bedeinkapenak, azokak eta beste

San Anton eguna ospatuko dute Euskal Herriko hainbat herritan asteburuan

Erredakzioa

Ohi den bezala, igandean, San Anton egunean egingo dute Txakolin Eguna Getarian (Gipuzkoa). Baina Getarian ez ezik, beste hainbat herritan ere ospatuko dute San Anton. Elgoibarren (Gipuzkoa), esaterako, hainbat ekitaldi izango dituzte asteburuan. Larunbatean, haurrentzako parkea, zigilu erakusketa, erraldoi eta buruhandiak, eta Musikalis abesbatzen kontzertua izango dira, eta

igandean, meza eta antzerkia, besteak beste.

Igandean ospatuko dute Urkiolako santutegian ere (Abadiño, Bizkaia) San Anton eguna. Jende mordoak gerturatuko da, urtero bezala. Asko dira, gainera, ogia eta baratzeak produktua bedein-katzera igotzen direnak. Txerriaren zozketa eguerdikoz meza bukatukoan egingo da.

Mungian ere ospatuko dute San Anton eguna (Bizkaia). Bertso saioa, meza, bertso bazkaria eta dantza saioa izango dira igandean, besteak beste. Baina bereziki biharamunean egingo dute festa. San Antontxu egunez urteko azoka nagusia izango da.

Arratsaldez profesionalen arteko pilota partidak jokatu dira, frontoian, eta trikilariek girotuko

dute erromeria Andra Mari plazan.

Arabaren eta Nafarroaren ere bai

Urteroko zozketarekin batera ha-maika ekitaldi izango da, igande arratsaldean, Gasteizko erdigunean. Txerria bedeinatu, txokolatela jan, erraldoi eta buruhandien kalejira eta zezensuzkoa izango dira, besteren artean. Plaza Berrian hasi, eta San Pedro elizazara arte egingo dute ohiko ibilbidea 17:15ean, txistulari eta animazio taldeek lagunduta. 18:00etan izango da zozketa nagusia, eta ordu erdi beranduago txikiena.

Kanpai errepikak iragarriko du, bestalde, festa Amurrioren (Araba). Eskulangile eta baserriko produktuen azokak bilduko ditu herriarrak 10:00etatik aurrera.

Txerriaren ohiko enkantea 12:30ean izango da, txakolina dastatu eta trikitixek girotu bitartean.

Asko dira Nafarroan igandean ekitaldi bereziak dituzten herriak: Larraga, Castejon, Cadreta, Zubieta, Buñuel, Elizondo...

San Anton izeneko ermitara egingo dute erromeria igandean Lesakako, Bortziritako eta Oiarzun eta Irun inguruko herriarrek. Festa giroan ibiliko dira egun osoan. Musika izango da, herri kirolak, bazkaria...

Artaxoan txerri zozketa izango da eguneko ekitaldi nagusia. Saria irabazten duenak txerria bizirik eramateko aukera izango du, edo nahiago badu, jadanik prest izango duten txerri haragi sorta bat aukeratu ahal izango du.

Iruñeko Subeltz lokalak bi urte bete ditu, eta larunbatean jaia izango da

I.A.

Badira bi urte Iruñeko Kuria kalean Subeltz gunea ireki zutela. Gune antiautoritario, autogestionatu eta asanblearioa da, eta hainbat ekimen hartu ditu bere baitan ateak ireki zituenetik hona. Kartzen inguruan, errepresioari buruz, gizarte kontrolaz, okupazioaz eta beste hamai-ka gairi buruz aritu dira lanean denbora tarte honetan. Ospakizun ordua da orain, eta larunbatean egingo dute lokalak ireki zela ospatzeko urteurren festa.

11:30ean hasiko da festa lokalean bertan, txupinazorekin. Elektrotxaragaren laguntzarekin, poteoa egingo dute ondoren, eta bazkari barazkijale eta beginoa egingo dute 14:30ean. 17:30ean gymkhana eta kutreshowa izango da. Gaez ere festa.

SUBELTZ GUNEAREN FESTA

- Non. Iruñean.
- Noiz. Larunbatean.

Txan Magoarekin hasiko dira bihar Antigua auzoko jaiak, Donostian

Erredakzioa Donostia

Asteburu honetan hasi, eta hilaren 24ra arte iraungo dute Donostiako Antigua auzoko jaiak. Bi asteburuen artean, gainera, Donostiako eguna ospatuko dute.

Bihar botako du Txan Magoak jaiak iragartzeko suzuria. Eta bihar bertan, poteo elegantea eta auzoko musika taldeen kontzertua izango da: Denyed, Blaka, Not enoug eta 3 Gabe 2. Larunbatean, berriaz, Mendeku Itxua, Bizardunak eta gozategi taldeen txanda izango da. Igandean, zaldi lasterketa antolatuta dute Ondarretan. Jaietako bigarren asteburuan, ko-adriren eguna egingo dute, larunbatean. Aurretik, hilaren 21ean, haurrentzako txokolatada antolatuta dute. Realeko jokalariek, eta Txan Magoak jokuzkuna eskainiko du Dokan.

JAIK

- Non. Antigua (Donostia).
- Noiz. Ostiralek aurrera.

Sagardoa dastatzeko garaia

Txotx Eguna egingo dute igandean Hernanin, eta bihar hasiko da denboraldia Nafarroan

N. Rodríguez-I. Astiz

Hasi da sagardo denboraldia. Atzo egin zuten irekiera ekitaldia Astigarragako Petritegi sagardotegian, eta igandean hasiko da Txotx denboraldia Hernanin (Gipuzkoa). Txotx Batzordeak

urtero gonbidatu bat izaten du denboraldiari hasiera emateko. Eta aurtun, Aizpea Goenaga aktore, zinemagile eta idazlea gonbidatu dute. Goenagak emango du lehen sagardo kolpea eta hark dastatuko du baita ere aurtengo lehen sagardoa.

Eguerdian hasiko da Txotx Egunezko festa. Eta Goenagak denboraldiari hasiera eman ondoren, Hernaniko plazan bildutako guztiek izango dute sagardo berria dastatzeko aukera. Sagardoarekin batera, moka-duk ere eskainiko dizkiete ber-

tan bildutako guztiei. Gainera, ez dira faltako, herri kirol erakustaldiak, dantzaldiak eta bertsolariak.

Nafarroako sagardoa

Nafarroan bihar emango zaio irekiera sagardo denboraldiari. Biharko antolatuta dute Nafarroako Sagardo Ekoizleen elkarteak kideek irekiera ekitaldia, eta bihar bertan hasiko da, beraz, sagardo sasoi.

Lesakan (Nafarroa) egingo dute irekiera festa, Lindurren-borda izeneko sagardotegian.

Bazkari batekin emango zaio hasiera denboraldiari, eta sasoi-ko sagardoa edan ahal izango da bertan. 14:30ean hasiko da otordua. Nafarroako urteko lehen txotxa izango da Lesakan egingo dena. Gehiago ere izango dira gero.

SAGARDO GARAIA

- Zer. Txotx Eguna Hernanin (Gipuzkoa), eta Nafarroako denboraldiaren hasiera Lesakan (Nafarroa).
- Noiz. Igandean Hernanin, eta bihar Lesakan.

P30-146